



Espacio colaborativo | Elkarlaneko gunea

ELKARTEAK ERATZEKO PAUSOAK

Herritarren Partaidetzako eta Gizartea Ahalduntzeko Alorra



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala

Nondik hasi?

1 Gutxienez hiru lagun izan behar zarete, eta irabazi-asmorik gabeko interes orokorreko proiektu komun bat eduki.

2

Informazioa jaso eta erabaki zer nolako izaera juridikoa hartu: elkarte, fundazioa, kirol kluba, gazteen elkarte...

3

Zehaztu zein lurralde-esparrutan arituko zareten: estatuan edo foru-komunitatean.

4

Eskuratu beharrezkoak diren agiriak: Nafarroako Gobernuaren Elkartearen Erregistroko webgunetik jaitsi ahal dituzue, edo Elkartearen Erregistro Nazionalaren webgunetik.



Eta hurrengo pausoa?

5

Agiriak irakurri eta bete.

7

Sortze-akta onetsi eta sinatu.

8

Estatutuak onetsi eta sinatu.

6


Lehen Zuzendaritza Batzordea aukeratu (behin-behinekoa izango da).

9

Helbide sozialaren gaineko erantzukizuneko aitortpena sinatu.

10


Ordainketa-gutuna ordaindu (12 € foru-komunitatearen esparruan eta 37,75 € estatukoan).



Zeintzuk dira elkarte batek bete behar dituen administrazio-eginbeharrak?



- Ondasunen inbentarioa izatea, bai eta bazkideen, kontabilitatearen eta akten liburuak ere.
- Urtero Ohiko Batzar bat egitea.
- Erregistroko informazioa egunean izatea.
- Haurrekin lan egingo bada, bolondres eta langileen natura sexualeko delitu ziurtagiria izatea.
- Egiten diren jardueren arabera, zergak ordaintzea eta baimenak eskatzea.



Non lor dezakegu informazio gehiago?

Zuen zain gaude!

Iruñeko Udalaren Zentro, Elkarlaneko guneko Lege Aholkularitzan, Herritarren Partaidetzako eta Gizartea Ahalduzko Alorra.

Kale Nagusia, 2
31001, Iruña.
948 420 266

asesoria.participacion@pamplona.es

Eta gainera, Zentron, hau guztia topatuko duzue: asoziazionismoan eta partaidetzan espezializatutako liburutegi bat, ekipamendu informatikoak, gelak zuen eskura, teknikari-talde bat eta zuek bezala gauzak egiteko gogotsu dagoen jendea.



Zer egingo dugu horrekin guztiarekin?

11


Dokumentazioa Administrazio-erregistro batean aurkeztu, eta eskatu entitatea elkarte-erregistro batean (Estatukoan zein Nafarroakoan) izena emateko. Hona Nafarroako erregistroaren helbidea: Karlos III. aren etorbidea, 2, behea, 31001, Iruña

12

Eskatu identifikazio fiskalaren zenbakia, Ogasunean.

13

Datuak babesteko gaietan indarra duen araudia bete eta, adibidez, Datuak Babesteko Espainiako Agentzian alta eman bazkideen fitxategiari.



*Eta behin
zuen elkarteak
izena eman
duenean
Elkarteen
Erregistroan...*

*beste toki
batzuetan izena
ematea eska
dezakezue,
hala nola
Iruñeko Udaleko
Herritarren
Elkarteen Udal
Erregistroan.*

*Zorte ona
izan zuen
proiektuarekin!*

Horretarako, beharrezkoa da zuen entitatearen helbidea Iruñean egotea eta honako agiri hauek aurkeztea edozein erregistro administratibotan:

- Estatutuen kopia.
- Elkarteen Erregistroaren ebazpena, zuen entitatearen izen-ematea eta zenbakia adierazita.
- Zuzendaritzako kargudunen izen-abizenak eta NANA edo nortasuna egiaztatzeko agiria, eta kargu horietarako aukeratu zituzten bileraren ziurtagiria.
- Entitatearen IFZren fotokopia, bertan adierazita helbide soziala Iruñean dagoela.
- Urte horretan egitekoak diren jardueren programa.
- Bazkide-kopurua egiaztatzen duen agiria (urtero berritu beharko da).
- Urteko aurrekontu orekatua.

